

## **UPV/EHUko DOKTOREGO SARI BEREZIEN DEIALDIA. 2023/2024 IKASTURTEA**

UPV/EHUko Estatutueta (17/2011 Dekretua, otsailaren 15ekoa) Graduondoko Batzordeari ematen zaio doktoregoko sari berezien esleipena onartzeko eskumena (90.art.).

Doktoregoko sari bereziak Doktorego Ikasketen Gestiorako Arautegiaren XIV. atalean daude araututa. Bertan esaten denez, "Unibertsitateak, ikasturte bakoitzean, doktoregoko sari berezi bat emango du defendatutako 10 doktorego tesiko edo 10eko zatiki bakoitzeko, eta honako arlo bakoitzeko: Zientziak; Ingeniaritza eta Arkitektura; Osasun Zientziak; Gizarte eta Lege Zientziak; Arteak eta Giza Zientziak." (48.1 art.). Gainera, zehazten da Doktorego Batzordeari dagokiola sarion deialdia egitea eta haien esleipena onartzea.

Hori dela eta, UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bileran, 2023/2024 ikasturteko Doktoregoko Sari Berezien deialdia egitea erabaki zuen, Doktorego Eskolak proposatuta, ondorengo oinarrietan zehazten diren baldintzetan.

### **OINARRIAK**

#### **1. DEIALDIAREN HELBURUA ETA EREMUA**

Deialdi honen helburua da 2023/2024 ikasturteko doktoregoko sari bereziak ematea, UPV/EHUko Estatutueta 90. artikuluari eta Doktorego Ikasketen Gestiorako Arautegiko 48. artikuluari jarraituz.

Ikasturte bakoitzean doktoregoko sari berezi bat emango da defendatutako 10 doktorego tesiko edo 10eko zatiki bakoitzeko, eta arlo hauetako bakoitzerako: Zientziak; Ingeniaritza eta Arkitektura; Osasun Zientziak; Gizarte eta Lege Zientziak; Arteak eta Giza Zientziak.

#### **2. ESKATZAILEEN BETEKIZUNAK**

Eskatzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- A. Doktorego tesia UPV/EHU defendatu izana 2023ko urriaren 1etik 2024ko irailaren 30era bitartean. Tesia 2022ko urriaren 1etik 2023ko irailaren 30era bitartean defendatu dutenen artetik amatasun edo aitatasun baimena izan dutenak 2023/2024 ikasturteko deialdi honetara aurkeztu ahal izango dira, baldin eta 2022/2023 ikasturteko aurkeztu ez baziren. Era berean, 2023ko urriaren 1etik 2024ko irailaren 30era bitartean tesia defendatu dutenen artetik amatasun edo aitatasun baimena izan dutenek, deialdi honetara aurkeztu nahi ez badute, 2024/2025 ikasturteko deialdian egin ahal izango dute eskaria, deialdi hori ateratzen denean. Aipatutako baimena izan beharko da denbora tarte honetan hartutakoa: tesiaren defentsa egunetik eskariak aurkezteko epea amaitu artekoa (3.1 atalean zehaztua).
- B. Doktorego tesiko epaimahaiak erabaki izana tesia sari berezira aurkezteko modukoa dela eta hari "cum laude" aipamena aho batez eman izana.

- C. Defendatutako tesiaren ondorioz, nazioartean izen handiko aldizkari batean argitalpen bat gutxienez onartua izatea, edo patente bat gutxienez aurkeztua izatea.

Arte eta Giza Zientzietako eta Gizarte eta Lege Zientzietako tesien kasuan, argitalpena liburua edo liburuko kapitulu bat izan daiteke, baina Argitalpen Akademikoen Kalitate Zigilua izan beharko du, edo "Scholarly Publishers Indicators in Humanities and Social Sciences" delakoan egon beharko da.

Argitalpenak doktorego programako lehenengo matrikularen dataren eta eskariak aurkezteko azken egunaren artean egindakoak izan beharko dira.

### **3. ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA**

#### **3.1. Eskariak aurkezteko era eta epea**

Eskabideak UPV/EHUko Doktorego Eskolara (DOKe) bidaliko dira. Eskaria egiteko formularioa [online bete beharko da](https://www.ehu.eus/eu/web/doktoregoa/doktorego-tesia/sari-bereziak) (<https://www.ehu.eus/eu/web/doktoregoa/doktorego-tesia/sari-bereziak>) eta UPV/EHUko Graduondoko Batzordeko buruari zuzendu beharko zaio.

Eskariak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, deialdi hau goian aipatutako web orrian argitaratzen den egunean hasita.

#### **3.2. Aurkeztu beharreko dokumentuak**

- A. Interesdunaren eskaria, UPV/EHUko Doktorego Eskolako (DOKe) buruari zuzendua.
- B. Eranskina, tesitik sortutako ekarpenen zerrendarekin. Adierazi beharko da zein lotura duen bakoitzak tesiarekin. Eskatzaileak ekarpenen kalitate zantzuak ere aurkeztu beharko ditu.
- C. Eranskinean aipatutako ekarpenen egiaztagiriak. Eranskinean alegatutako merezimenduak baino ez dira aintzat hartuko, eta ezinbestekoa izango da tesitik sortuak izatea eta eskatzaileak haiek dokumentuz egiaztatzea eskariak aurkezteko epearen barruan.
- D. Amatasun edo aitatasun baimena hartu izanaren egiaztagiria, hala badagokio.

### **4. ESKARIEN TRAMITAZIOA ETA EBALUAZIOA**

#### **4.1. Aurkeztutako tesiak jakintza adarka ebaluatuko dira.**

Horretarako, ulertuko da tesi bakoitza atxikita dagoela interesdunak egindako doktorego programaren jakintza adarrari, programaren egiaztapen memoriaren arabera.

## **4.2. Jakinarazpenak egiteko eta zerrendak argitaratzeko bideak**

Deialdi honen inguruko dokumentazio eta informazioa eta interesdunentzako jakinarazpenak argitara emango dira UPV/EHUko Graduondoko Ikasketen web orrian, 3.1 oinarrian emandako estekan (<https://www.ehu.eus/eu/web/doktoregoa/doktorego-tesia/sari-bereziak>), eta hori izango da interesdunei jakinarazpenak egiteko modua.

Gainera, eskatzaileek helbide elektroniko bat jarri beharko dute eskarian, banan banako jakinarazpenik egin beharko balitz horra bidaltzeko.

## **4.3. Ebaluaziora onartutako eta baztertutako eskarien behin-behineko zerrenda**

Eskariak aurkezteko epea amaiturik, Doktorego Eskolak aztertuko du ea eskatzaileek betetzen dituzten 2. oinarrian zehaztutako baldintzak.

Eskariak azterturik, web orrian argitaratuko dira baztertutako eta ebaluazio fasera onartutako eskarien behin-behineko zerrendak, eta bertan zehaztuko da zein ikasturtetan eta zein jakintza arlotan ebaluatuko den bakoitza.

Behin-behineko zerrendak argitaratzen diren egunaren biharamunetik hasita, hamar eguneko epea egongo da erreklamazioak jartzeko, alegazioak egiteko edo akatsak zuzentzeko. Horretarako, web orrian dagoen formularioa bete beharko da online.

## **4.4. Ebaluaziora onartutako eta baztertutako eskarien behin betiko zerrendak**

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, onartutako eta baztertutako eskarien behin betiko zerrenda argitaratuko da. Behar den epean eta eran akatsak zuzendu ez dituztenek eskaria bertan behera utzi dutela ulertuko da.

## **4.5. Ebaluazio fasea**

4.5.1. UPV/EHUko Doktoregoko Ikasketa Ofizialen Gestiorako Araudiaren 64.5 artikulua araber, UPV/EHUko Doktorego Eskolako Kontseilu Iraunkorrek epaimahai bat izendatuko du deialdi honetako 1. oinarrian aipatutako arlo bakoitzerako. Epaimahai bakoitza arloko hiru irakasle doktorek osatuko dute, lanaldi osoko kontratu iraunkorra dutenak. Epaimahaiko kideek gutxienez doktorego tesi bat izan beharko dute zuzenduta eta ikerketako seiurteko bat edo baliokidea aitortuta. Ezin izango dira epaimahaikide izan sarietarako hautagai diren tesien zuzendariak.

4.5.2. Arlo bakoitzean onartutako eskariak arlo horretako epaimahaiari bidaliko zaizkio. UPV/EHUko Doktorego Ikasketa Ofizialen Gestiorako

Arautegiaren 64.6 artikulua araberako epaimahaiek jasotako eskaerak baloratuko dituzte. Horretarako, behar duen informazio guztia eskatu ahal izango die hautagaiei. Era berean, epaimahaiak aholkua eskatu ahal izango die adituei hala behar duenean.

4.5.3. Epaimahaiek erabaki ahal izango dute haztapen faktoreak erabiltzea eta/edo sariak banatzea, bermatzeko sariak ekitatez banatzen direla arlo jakin bateko azpiarloen artean. Azpiarlo horiek zehazteko erabili ahal izango dira Ikerketa Ebaluatze Estatu Batzordeak (CNEAI) onartutako azpieroak, Estatu Batzorde Agentziaren arlo tematikoak, edota epaimahaiaren iritziz kasu bakoitzeko jakintza arloan aplikagarria den beste edozein irizpide.

4.5.4. Eskariak ebaluatze, epaimahaiek kontuan izango dituzte, orientazio modura eta deialdi honetan aplikatzekoak diren neurrian, balorazioa egiteko garaian Ikerketa Ebaluatze Estatu Batzordeak (CNEAI) arlo zientifiko bakoitzerako indarrean dituen irizpideak, zeinak argitaratuta egongo diren 4.1 oinarrian aipatutako web orrian.

4.5.5. Jarraian aipatzen dira epaimahaiek baloratu ahal izango dituzten ekarpenak, bai eta bakoitzari eman ahal izango dizkieten puntuak ere:

1. Nazioarteko tesia: 2 puntu.
2. Liburua: 0 eta 4 puntu artean ekarpen bakoitzeko. Liburuko atala: 0 eta 2 puntu artean ekarpen bakoitzeko.
3. Indexatutako aldizkarietan argitaratutako artikulua: 0 eta 5 puntu artean ekarpen bakoitzeko. Gainerako aldizkarietan argitaratutako artikulua: 0 eta 2 puntu artean ekarpen bakoitzeko. Puntu bat gehiago emango da euskaraz idatzitakoak badira. Indexatutako aldizkariak ez direnez, epaimahaiak ebaluatuko du aldizkariaren kalitatea.
4. Patenteak: 0 eta 5 puntu artean ekarpen bakoitzeko.
5. Arte sorkuntza: 0 eta 5 puntu artean ekarpen bakoitzeko. Ekarpen hau Arteen esparruan baino ez da baloratuko.
6. Kongresuak: 0 eta 0,5 puntu artean ekarpen bakoitzeko. Epaimahaiak baloratuko du kongresuaren kalitatea (hitzaldiak ebaluatzen dituen batzorde zientifikoa, kongresua nazioartekoa izatea etab.).
7. Sariak: 0 eta 2 puntu artean ekarpen bakoitzeko. Epaimahaiak baloratuko du sariaren garrantzia eta kalitatea.

8. Bestelakoak: 0 eta puntu 1 bitartean atal osorako. Epaimahaiak ebaluatuko du aurreko ataletan baloratu ez diren ekarpenen kalitatea.

Argitalpenak baloratzeko, nahikoa izango da kasuan kasuko argitaletxeak edo erakundeak onartutakoak izatea.

Epaimahai bakoitzak erabakiko du aipatutako ekarpenetatik zeintzuk baloratuko dituen dagokion jakintza arloan, eta zein neurritan, ezarritako mugen barruan.

Berdinketarik egonez gero, tesiaren eta bere ekarpenen eragin sozial eta zientifikoari erreparatuko zaio.

4.5.6. Epaimahaiak akta egingo dute eta UPV/EHUko Doktorego Eskolari helaraziko diote. Aktan honako xehetasun hauek jasoko dituzte:

- Epaimahaiaren bileraren lekua eta data.
- Epaimahaiko kideen izenak.
- 4.5.3 atalean aipatzen diren haztapen irizpideei eta/edo azpiarloen banaketari buruzko argibideak edo zehaztapenak, adierazita azpiarlo bakoitzean, egonez gero, emango den sari kopurua.
- 4.5.5 atalean aipatutako ekarpenen balorazioari buruzko argibideak edo zehaztapenak.
- Eskarien zerrenda, interesun bakoitzari alegatu eta egiaztatutako merezimenduengatik eman zaizkion puntuekin, zehaztuta 4.5.5. atalaren arabera jakintza arlo bakoitzean baloratuko diren ekarpen bakoitzean emandakoak, eta azpiarloka banatuta, halakorik egonez gero.
- Sari berezirako proposatutako pertsonen zerrenda, izen-deiturekin.

Aktak epaimahaiko buruak eta idazkariak sinatuko dituzte, gutxienik.

Sariak eman gabe geratu ahal izango dira epaimahaiak hala erabakitzen badute moduarrazoituan.

#### **4.6. Merezimenduen behin-behineko balorazioa**

Doktorego Eskolak epaimahaien proposamenak aztertuko ditu. Proposamen horiek behin onartuta, pertsona bakoitzak lortutako puntuak argitaratuko dira web orrian, arlo edo azpiarlo bakoitzean erabilitako balorazio irizpideekin batera, eta hori izango da interesdunei jakinarazpena egiteko modua.

**Interesdunek eskatu ahal izango dute puntuazioa zehaztuta ematea.**

Interesdunek gehienez hamar eguneko epea izango dute erreklamazioak eta alegazioak aurkezteko, behin-behineko balorazioa argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Aipatutako epean alegaziorik jaso ezean, balorazioa onartutzat joko da eta alegatzeko eskubidea bertan behera geratuko da.

#### **4.7. Behin betiko erabakia**

Doktoregoko Ikasketa Ofizialen Gestiorako Araudiaren 64.7 artikulua araber, Doktorego Eskolak, aurkeztutako erreklamazioak erabaki ondoren, Graduondoko Batzordeari saria bereziak emateko proposamena egingo dio.

Doktoregoko Ikasketa Ofizialen Gestiorako Araudiaren 64.8 artikulua araber, UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak, Doktorego Eskolak egindako proposamena ikusita, doktoregoko sari bereziak ematea onartuko du Erabaki hori deialdi honetan aipatutako web orrian argitaratuko da, eta hori izango da interesdunei jakinarazpena egiteko modua.

### **5. ERREKURTSOAK**

Deialdi honek eta doktoregoko sari bereziak esleitzeko UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak hartutako behin betiko erabakiak ez diote ematen amaiera administrazio bideari, eta horien aurka egiteko gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Euskal Herriko Unibertsitateko Errekurtsoen, Irizpenen eta Sinplifikazioaren arloko Batzorde Administratiboari (EISBA) hilabeteko epean, deialdia zein erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasita, horrek ezertan eragotzi gabe beste edozein errekurtsu jartzea.

Gorako errekurtsoa jarri denetik hiru hilabete igaro badira erabakirik jakinarazi gabe, administrazioaren isiltasunez ezetsi dela ulertu beharko da, eta orduan administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da Bilboko administrazioarekiko auzien epaitegietan.

#### **Batzordeko Burua**

Ainhoa Berasaluze Correa  
Graduondoko eta Etengabeko  
Ikaskuntzako Errektoreordea

#### **Batzordeko idazkaria**

Amaia Landera López  
Graduondoko ikasketen zerbitzuko Burua